

## GIL 144 Pozalaguako barita



Mineralizazioa dagoen lekuan egindako lagin-zuloa.

### Kokapena (Ustiategi abandonatua)

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43°15' 31,06'' N

Long.: 3°23' 11,98'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 468.616,30 m

Y: 4.789.608,35 m



### Nola iritsi

BI-630 errepidean goazela, Ranero herrirako bidea hartu behar dugu. Handik, Pozalaguako haitzulora iritsi arte, seinaleei jarraitu behar diegu pista asfaltatu batean zehar. Aparkaleku batean bukatzen da pista, gaur egun musika-ekitaldietarako anfiteatro gisa erabiltzen den dolomita-harrobi abandonatu baten ondoan. Aparkalekutik, oinezkoentzako mendi-bide prestatu bat hartu behar dugu; harrobiko hondakindegia zeharkatu eta gero, hego hego-ekialderantz jaisten da bidea pixkanaka Karrantza ibaiaren haizpitarerantz. Erdibidean, hondakindegia ikus daitezke, bai eta baritari lotutako galena-mineralizazioa ustiatzeko aire zabaleko meatzeak ere.



Tamaina handiko kalzita hidrotermal betegarria.

## Deskribapena

Baritaren mineralizazioa filoniar motakoa da, eta Albiarraren amaieran eta Cenomanian-reean Raneroko *overstep* jokoak kareharri albiarretan sortutako hausturetan kokatua dago. Mineralizazioa konplexua da; lehenik, dolomita-fase bat ikusten da, hausturan zehar kareharria ordezten duena. Mineralizazioaren bigarren fasean, dolomita ordeztu egiten da, eta baritazko eta galenazko betegarri batek betetzen ditu hausturak. Fase dolomitikoaren aldean, oso ezberdina da. Azkenik, kaltzitak eta kuartzoak aprobetxatu egiten dute bigarren fasean gelditu den porositatea. Une honetan, eboluzio paragenetiko hori aztertzen ari dira. Hala ere, argi dago fluido hidrotermal mineralizatzaileen bilakaera gertatu dela: magnesikoak izatetik (Mg eta Ca karbonatoak) oinarritzko metaletan aberats izatera (Ba sulfatoa, Pb sulfuroa), eta, azkenik, hondar-fluidoak izatera (Ca, Si).

Fluidoaren bilakaera konplexua eta Pozalaguako dolomitizazio hidrotermalarekin duen lotura adierazten dituen eboluzio paragenetikoaz gainera, mineralizazio honen interesgunea, Gil gisa, baritan dago; Eusko-Kantauriar arroko baritazko kristalik handienak dira, bai eta munduko handienetakoak ere. 30 cm-rainoko luzera izan dezakete, eta anomalia mineralogikotzat har daitezke.

## Material osagarria

Baritazko kristalen lagin baten argazkia (Iturria: López-Horgue eta Iriarte, 2010).

## Erlazionatutako Gilak


- **Geografikoki:** Gil 16, Gil 17, Gil18, Gil 64, Gil 67, Gil 107, Gil 138, Gil 145, Gil 146.
- **Gaiari dagokionez:** Gil 138.



Barita kristalen esku-lagin baten argazkia (López-Horgue eta Iriarte-k (2010) lagata).



Barita.



## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				●
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean ●	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- Herrero, J. M. 1989. *Las mineralizaciones de Zn, Pb, F en el sector occidental de Vizcaya: mineralogía, geoquímica y metalogenia. Doktore-tesi argitaratu gabea*, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 285 or.
- López-Horgue, M. A. eta Iriarte, E. 2010. *Contributions of the elemental and isotope geochemistry to the genetic model of the structurally controlled hydrothermal dolomites of the Asón Valley, Basque-Cantabrian Basin, Northern Spain*. TOTAL, S. A.-rentzako txosten argitaratu gabea, Paue, Frantzia.
- M. A. López-Horgue, E. Iriarte, S. Schröder, B. Caline, A. Aranburu, F. García-Garmilla. 2011. *“Seismic cycles of fracturing and hydrothermal dolomitisation in the mid Cretaceous of Ranero area (Asón HTDs, Basque-Cantabrian Basin, Northern Spain)”*. Oral presentation, 28th IAS meeting of sedimentology, Zaragoza; Abstracts book, 570 or.